

Bidaiariaren gidaliburua - 2022ko maiatza

TXIK TXAK Ekin



Ipar Euskal Herri osoan
eta Landetako hegoaldean
mugarik gabe mugitzen gara.

**Bagoaz? Gidaria
segi dezagun!**



TXIK TXAK, Ipar Euskal Herrian eta Landetako hegoaldean mugitzeko SOLUZIOA da, ingurumena eta zure buxeta zainduz.

Autobusean, Tram'bus-ean, hiri erdiko autobus joan-jinkarian, eskaera bidezko garraioan, bizikletan, autokidetzan eta itsasontzian: sinpleki mugitzeko aukera handia eskaintzen dizugu.

Bidea elkarrekin eginen dugu? Denak irabazle izanen gara!

P.3

BERRIKUNTZA:

TXIK TXAKekin, edozein lekutara eta nahi bezainbat mugitzen gara!

P.4

GARRAIO MOLDEAK

aukera handia

P.6

PREZIO ETA HARPIDETZAK:

kezkarik gabe eta merke mugitu

P.10

ZURE IBILBIDEA ANTOLATU:

TXIK TXAK bezain sinplea!

P.14

IBILBIDEEN PLANOA:

zure helmugak eskura

BERRIKUNTZA! TXIK TXAKekin edonora eta nahi bezainbat mugitzen gara!

Sinpleago izan dadin, gaurdanik TXIK TXAKekin Ipar Euskal Herri osoan eta Landetako hegoaldean mugitzen gara, mugaririk gabe.

Autoa pixka bat baztertu nahi? Ohiturak aldatu, eta egunerokoan TXIK TXAK hautatu!

Merkeagoa

Guzientzat eskuragarri diren elkartasunezko prezioei esker, TXIK TXAKekin garraio gastuak apaltzeko aterabide bat badugu, azkenean. Ibilbide hautu zabalari esker, lurralde osoan gaindi mugi gaitzke 0,96€-ren truke, distantzia edozein izanik ere eta loturazko bidaietan barne!

Ekologikoagoa

Gure lurraldea maite eta zaintzen dugu. Ondare horren babesteko zergatik ez partekatu gure bidaiak? TXIK TXAKekin lerroak mugiaraz ditzagun!

Sinpleago

Garraio-titulu bakarrarekin, TXIK TXAKekin Ipar Euskal Herri osoan eta Landetako hegoaldean ibilbide andana eskaintzen dizkizu. Zoazen lekutik zoazen lekura, bortxaz TXIK TXAK geltoki bat duzu inguruan!

Denbora gehiago baliatzeko!

Autoan denbora galtzea bukatu da! TXIK TXAKekin zure mail-ak irakur ditzakezu edo telesaila begiratzen buka dezakezu, lasaitu edo mintzatu besterik gabe. Nahi duzun lekura nahi duzularik lasaitasun osoz eramanen zaitugu.

Garraio moldeak

Aukera handia

Lanera edo medikutara joateko, surfa egitera, lagunak ikustera, erosketak egitera edo zinemara joateko TXIK TXAK garraibide batek lagunduko gaitu beti.



Goazen autobusez!

Lurraldeko herriak lotzen dituzten 30 ibilbiderekin, erraza eta sinplea da.



Horrez gain: goizean goiz al zoaz lanera? Berantago sartzeko gogoa al duzu? Lasai! Linea batzuk goizeko 06:00etatik gaueko 02:00ak arte erabilgarriak dira.



Eta uda honetan bereziki, autobusa HAUTU HOBERENA izanen da eguzkia edo bainu baten hartzera joateko, 1,20€-tan hondartzarako bidaia!



Salto Tram'busera!

Sar gaitezen 2 linea ultra modernoetara, % 100 elektrikoak eta eroso-erosoak. Miarrizkeko Herriko Etxetik Baionakora 30 minutu eskasetan T1arekin.

Eta 20 minutu bakarrik T2arekin, Tarnosetik Baionako hiri erdiraino heltzeko.



Eraginkortasuna lortzeko soluzioak biderkatzen ditugu, adibidez autoa, Parkings Relais P+Ran utzi eta Tram'buserekin segitzen dugu. Aparkatzeko buruhauste gehiagorik ez!



Horrez gain: jarleku guzien azpian, smartphonea kargatzeko USB lokia duzu.



Eskola-garraioak... eta gehiago ere!

Eskola garraioetarako izen-emateak, <28 urtekoen txartela eskuratzeko aukera dakar, eskolara eta aisialdi leku guzietara askatasunez joan ahal izateko, urte osoan zehar eta mugarik gabe.



Hiri erdiko autobus joan-jinkariak doan, balia ditzagun!



Urte osoan zehar Baiona eta Miarritzen ibiltzeko, bainan baita ere uda honetan Bidarten, Getarian eta Donibane Lohizunen, autoaren alde txarrak ahantzi eta sar gaitezen hirien erdiguneetatik eta hondartza ederrenetatik dabiltzan 7 joan-jinkari doakoetara.



Horrez gain: urririk dira eta gehienak % 100 elektrikoak. Orduan hiri-barneetan goxoan ibiltzeko edo eguzkia hartzeko autoa etxean utzi!



Autobusak: bidea lasai egin!

Ipar Euskal Herrian, ingurumen zabal bezain eder eta itxura anitzekoa dugu! Zure gogoaren araberako bidaia eroso proposatuko dizu TXIK TXAKek, eguneroko ibilbidea izan edo inguru berriak ezagutzeko izan. TXIK TXAKek eramaten zaitu, beraz bidaiaz goza, lasai.



Horrez gain: konektatuak egoteko, ibilbide batzuek Wifia dute!



Bizikleta gainean Lurraren onerako.

Bizikleta elektrikoa epe luzerako aloka! Lurraldean eta bizikleta-bideetan gaindi lanera edo promenatzera goaz.



Horrez gain: uda honetan, bizikletak leku segurean uzteko aparkalekuak izanen dira, beraz hondartzara bizikletaz ez joateko aitzakirik ez. Gure bizikletak kostaldeko 9 hondartzatan urririk zainduak izanen dira, Ondresetik Donibane Lohizuneraino, Tarnose, Angelu, Miarritze, Bidarte eta Urruñatik pasatuz.



Ibai joan-jinkaria: boga marinela!

Baionako hiri erdia eta Angeluko hondartzak Bokaleko kalari lotzeko, Aturri zeharkatzea praktiko eta magikoa da.



Horrez gain: bizikletak bornuan har daitezke.



Autokidetza: elkarrekin urrunago goaz

Eta noiztenka lanerako bidea partekatuko bagenu? Lankide edo auzokoekin elkartzuz moltsa eta lurra zaintzen ditugu. Bidaiak erraztasunez antolatzeko txixtak. fr helbidean laguntza atzeman dezakezu.

Prezio eta harpidetzak

Prezio merkean eta nahi bezainbat mugitzen gara!

TXIK TXAKekin dirua aurrezten dugu eta gure bizia errazten. Elkartasunezko prezioei eta prezio apalei esker hauek edonork ordaintzeko modukoak dira.



Gainera praktikoa da: txartel bakarrarekin Ipar Euskal Herriko eta Landetako hegoaldeko TXIK TXAK garraiobide guzietara sar gaitzke.

Noizbehinka sinpletasun osoz bidaiatzen dut!

Lurraldea ezagutzeko bisitan edo autoa pixka bat baztertzeko asmoarekin zabilta?

Arazorik ez: noizbehinkako txarteekin leku guzietara goaz, bidaiak 0,96 €-tik hasita, distantzia edozein izanik ere eta loturazko bidaietan barne.

Bakarka edo taldean, egun bat edo astebeterentzat: prezioa nire beharretara egokitzen da.



Horrez gain: Euskopass-arekin, Hendaia erdiguneko geltokian Euskotren-ekin lotura eginez, Donostiaraino hel naiteke autobusa eta trena bateratuz, 5,50 €-ren truk (joan-jina).

Prezio **bakarra**

**Bidaia 1eko
tiketa**

1,20€

**Egun 1eko
txartela**


3,50€

**7 eguneko
txartela**

13€

**Taldeño
joan-etorri
txartela**

6€



Askatasun osoz bidaiatzen dut!

Engaiamendurik gabe eta neurria egina den PASS LIBERTÉa, beti eskura ukaitea komeni den txartel berria da. Garraio publikoak nahi bezala erabili, bidaia 0,96 €-ren truke, eta egindako kontsumoa hilabete bukaeran zure kontutik kendua izanen da.

- +** Horrez gain: pass-a erdiestea doakoa da, eta hilabeteko harpidetzaren prezioa baino gehiago ezin da pagatu. Eta ez baldin baduzu autobusa hartzen? Adibidez, ez baldin baduzu autobusa erabiltzen, hilabete bukaeran ez duzu ezer ordaintzen! Laburbilduz, PASS LIBERTÉarekin prezio hobereanean bidaiatzeko segurtamena baduzu, hilabete bukaeran sorpresa txarrik ukan gabe!

Praktikoa!

PASS LIBERTÉa

0,96€/bideat



Berriz bete daitezkeen txartelak: praktikoak eta ekologikoak

% 100 berriz bete daitezkeen kontakturik gabeko txartelekin erraz bidaiatzen dugu. Ezusteko bidaia bat? Moltsatik atera eta karga ezazu zuzenean garraio-bidean edo geltokiko txartel-makinan.

- +** Horrez gain: Lurra zaintzeko ez dugu gehiago txartelik zikinontzira botako.



taldeño txartela
7 eguneko

40€

10 bidaiako txartela

9,60€

Euskopass

5,50€

Ohiko bidaiaria? Gure garraiobideak mugarik gabe baliatzeko, abona zaitzez!

Autorik gabe ibil zaitezke? Ongi etorri ohiko bidaiarien taldera. Lanera, eskolara eta ateraldi guzietara joateko gure garraiobide guziaz baliatu itzazu mugarik gabe. Zure harpidetzak edonora joatea ahalbidetzen dizu zailtasunik gabe.

+ Horrez gain: soldataduna zara? Harpidetza guziz nagusiaren % 50aren parte-hartzea onartzen dute.



28 urtetik beherakoa naiz

Klasera, lanera edo ateraldi guzietara joan! <28urtekoen txartela, nahi duzun lekura joateko askatasuna duzu, noiznahi. Hilabetean gehienez **8 € pagatuko duzu**, egun osoan zehar mugitzeko sakelari behar den txartela. Eta urteko harpidetzarekin, eta elkartasunezko prezioarekin 4 €-tik hasten den hilabeteko

Hilabeteko Harpidetza

20€ / hilabetea

10€ / hilabetea

% 50-ko parte-hartzea kendu ondok

Hautu hoberenat

Urteko Harpidetza

8€ / hilabetea

4€ / hilabetea

% 50-ko parte-hartzea kendu ondok



28 eta 65 urte artean naiz

Garraio publikoarekin egunerokoa sinpleagoa da. Zirkulazioari eta aparkatzeari loturiko arazoak bukatzen dira: gure bidaiantzat TXIK TXAK erabiltzen dugu eta goxo da. Mailak bukatu, telesaila edo liburua bukatu. Laburbilduz, harpidetza, denbora eta dirua irabazten ditugu.

Hilabeteko Harpidetza

36€ / hilabetea

18€ / hilabetea

% 50-ko parte-hartzea kendu ondok

Hautu hoberenat

Urteko Harpidetza

29€ / hilabetea

14,5€ / hilabetea

% 50-ko parte-hartzea kendu ondok



65 urte baino gehiago ditut

Gure lurraldearen goxotasunaz gozatu eta autoa gutiago erabili nahi duzu? Ongi etorri gure garraibideetara! TXIK TXAKek promenatzera, lagunen ikustera edo merkatura eramane zaitu. Webgunera jo edo bulegora etor zaitez ibibideen planoen, ordutegiaren eta geltokien ikustera. Goazen, bidaiariak prestatu dezagun!

Hilabeteko Harpidetza

25€ / hilabetea

Hautu hoberenat

Urteko Harpidetza

20€ / hilabetea

Moltsa mehea dutenentzat:

Zure irabazien eta familiaren osaketaren arabera, % 50 eta % 70aren arteko beharpenak lortu daitezke.

Zure nortasun agiria eta hilabete horretako edo aurreko hilabeteko CAFaren edo MSAREN ordainketa agiriarekin, zoaz bulego komertzialera edo e-dendara urteko eta hilabeteko harpidetzen elkartasunezko prezioak ezagutzera.

Bestenaz, txiktxak.fr helbidean, zoaz "Tarification solidaire" sailera.

Zuzenean ordaintzen dut



Txartelik ez? Lasai!

Garraibidearen barneko makinan kontakturik gabeko diru-txartelarekin ordain ezazu, 1,20 €. TXIK TXAK sarearen ibilbide guzietan aurkituko duzun zerbitzua da.



Horrez gain: egun berdinean zure diru-txartelarekin bidaiari desberdinak balioztatu badituzu, konduktik kenduko zaizun dirua Egunduko 1eko txartelaren preziora jautsiko da automatikoki. Hor ere prezio hoberean bidaiatu dezakezu!



Txartelik ez? Banku-txartelik ez? Pentsa SMS txartelari! "BUS" hitza eta linearen zenbakia bidali 93064 zenbakira eta momentuan, 1,20 €-ren truk, bidaiari 1eko tiketa eskuratuko duzu zure telefonoan.

Presta ezazu bidaia

Leihatila bakarra informazioa biltzeko, bidaia prestatzeko eta garraio-tituluen erosteko, hori guzia simple-sinpleki.

1.




Zure ibilbidea eta ordutegia hauta itzazu:

- ✓ txiktxak.fr webgune berrira joanez TXIK TXAK sarean zailtasunik gabe murgil zaitez.



txiktxak.fr

2.



Zure ibilbideari dagozkion informazio praktikoak deskargatu:

- ✓ TXIK TXAKen ordutegien fitxa guziaz eskuragarriak dira edo telekargatzeko zain
- ✓ Sektorearen planoa edo TXIK TXAK sarearen planoa deskarga itzazu
- ✓ Trafikoari eta ordutegiari buruzko informazioak zuzenean har itzazu

bezain erraza!

Txik Txak !



3.

✓ Zure tituluak erosi: zinez sinplea!

txiktxak.fr webgune berrira joanez TXIK TXAK sarean zailtasunik gabe murgil zaitez.

AURREIKUSTEA MAITE DUTENENTZAT:

Kontakturik gabeko txartelak eta hilabeteko zein urteko txartelak berriz betetzeko, zure Pass'LIBERTÉ txartela eskatu ezazu **txiktxak.fr** interneteko dendan:

- Geltoki batzuetan dauden **makina automatikoetan**
- **Bulegoan** edo TXIK TXAK sarearen kide diren komertsanteekin

ETA BETI KORRIKA ETA PRESAKA ARI DIRENTZAT:

Gidariari galdeginez ere eros dezakezu txartela (Tram'Bus-aren ibilbideetan izan ezik) Gidariaren lana errazteko, diru kopuru zuzena ematea eskertzen dizugu.



TXIK TXAK eta Ni



Internet gunea

Txiktxak.fr



Bulegoak

Txik Txak agentziek/langileek han errezibituko zaituzte:

- Lormand karrika, 7 - 64100 BAIONA
 - Louis Barthou etorbidea - 64200 BIARRITZ
 - Passicot Kmdte bul. - 64500 DONIBANE LOHIZUNE
 - Nafarroako etorbidea 26 - 64120 DONAPALEU
-



Sare sozialak:

@txiktxakPaysBasque

Zure etxetik hurbilen dagoen plano bilduma!

Aurkitu zure sektoreko plan bilduma Txik Txak agentzian, gure webgunean edo QR Kodean.



Plan bilduma


TXIK TXAK, Euskal Elkargoko Mugikortasunen Sindikatuaren nahiaz sortu zen, xede batekin: gure lurraldeko mugikortasun iraunkorrek eskuragarriago izan daitezen, denentzat. Horretarako, lurraldeko garraiobide sare guziak (Chronoplus, Hegobus, Car Express, Proxibus izandakoak) sare bakarrean batu ziren.



Zoin da TXIK TXAKen erranhia?

TXIK TXAK pilotariak erabiltzen duten erran-moldea da. Pilotak lurra jo, hormaren gainean punpa egin eta berriz lurra jotzean egiten duen soinua adierazteko onomatopeia da.

OCÉAN ATLANTIQUE OZEANO ATLANTIKOA



Index des lignes Lineen aurkibidea

Lignes principales Linea nagusiak

- T1** BIARRITZ ↔ BAYONNE
- T2** TARNOS ↔ BAYONNE
- 3** HENDAYE ↔ BAYONNE
- 4** BAYONNE ↔ BIDART
- 5** BAYONNE ↔ BIARRITZ
- 6** ST-P.-D'IRUBE ↔ BIARRITZ
- 7** BIARRITZ ↔ BIARRITZ (été uniquement)

Lignes de car Autobus lineak

- 10** ST-É.-DE-BAÏGORRY ↔ ST-PALAIS
- 11** BAYONNE ↔ T.-SORHOLUS
- 12** BAYONNE ↔ SAMES
- 13** BAYONNE ↔ ST-ESTEBEN
- 14** BAYONNE ↔ ESPELETTE
- 15** CAMBO-LES-BAINS ↔ IHOLDY
- 16** UREPEL ↔ ST-M.-D'ARROSA

Lignes complémentaires Linea osagarriak


- 30** TARNOS ↔ ANGLET
- 31** HENDAYE ↔ IRUN
- 32** ANGLET ↔ BAYONNE
- 33** HENDAYE ↔ IRUN
- 34** ANGLET ↔ ANGLET
- 35** HENDAYE ↔ HENDAYE
- 36** BIARRITZ ↔ ANGLET
- 37** HENDAYE ↔ BIRIATOU
- 38** BIDART ↔ BAYONNE
- 39** HENDAYE ↔ ST-JEAN-DE-LUZ
- 40** TARNOS ↔ TARNOS
- 41** CIBOURE ↔ ST-JEAN-DE-LUZ
- 42** BOUCAU ↔ TARNOS
- 43** URRUGNE ↔ ST-JEAN-DE-LUZ
- 44** BIDART ↔ BIARRITZ

- 45** ST-JEAN-DE-LUZ ↔ SARE
- 46** BAYONNE ↔ BIDART
- 47** ST-JEAN-DE-LUZ ↔ AIHNOA
- 48** BAYONNE ↔ MOUGUERRE
- 49** ST-J.-DE-LUZ ↔ CAMBO-LES-BAINS
- 50** VILLEFRANQUE ↔ BAYONNE
- 51** BIARRITZ ↔ ST-JEAN-DE-LUZ
- 52** BIARRITZ ↔ BAYONNE
- 54** BAYONNE ↔ ST-M.-DE-SEIGNANX
- 56** BAYONNE ↔ ONDRES
- 57** CAMBO-LES-BAINS ↔ CAMBO-LES-BAINS
- 58** ST-M.-DE-SEIGNANX ↔ ONDRES (été uniquement)
- 59** CAMBO-LES-BAINS ↔ ITXASSOU
- 61** USTARITZ ↔ USTARITZ
- Adour 1** BAYONNE ↔ ANGLET

NAVARR
NAFARRO

LATITUDE
AZ22





TXIK TXAK



LANDES
LANDAK

BÉARN
BIARNOA

Saint-Martin-de-Seignanx
Hauts de Bayonne
T2 54 58
T1 32 54

Ametzondo
St-Pierre-d'Irube
Hiriburua
6
T1 12 3 4 5
5 11 12 13 14
0 32 38 48 50
2 56 Adour 1

Villefranque
Milafranga
50
Ustaritz
Uztaritze
61

Cambo-les-Bains
Kanbo
14 15 49
57 59
2
Assou
sasou
59

Saint-Martin-d'Arrossa
Arrossa
16

St-Etienne-de-Baigorry
Baigorry
10 16
Banca
Banka
16
Aldudes
Aldude
16
Urepel
Urepele
16

St-Jean-Pied-de-Port
Donibane Garazi
10

St-Jean-le-Vieux
Donazaharre
10

Lahonce
Lehuntez
12
Urcuit
Urketa
12
Mouguerre
Mugerre
48
Bardos
Bardoze
11

Briscous
Beskoitze
13
La Bastide-Clairence
Bastida
13 15

Hasparren
Haaparne
13 15
Bonloc
Lekuine
15
Mendionde
Lekuine
15
Hélette
Lekorne
15
Iholdy
Iholdi
15
Irissary
Irisarri
15

Bidarray
Bidarrai
16
Ossès
Ortzaize
16

St-Etienne-de-Baigorry
Baigorry
10
Irouléguy
Iroulegi
10
Ascarat
Azkarate
10
Uhart-Cize
Uhartze Garazi
10

St-Jean-Pied-de-Port
Donibane Garazi
10
St-Jean-le-Vieux
Donazaharre
10

St-Jean-le-Vieux
Donazaharre
10
Lacarre
Lakarra
10

Guiche
Gixune
12
Bidache
Bidaxune
11
Arraute-Charritte
Arrueta-Sarrikota
11
Masparraute
Martxueta
11
Luxe-Sumberraute
Lüküze-Altzumarta
11
Garris
Garrüze
11

Ayherre
Aiherra
13
Isturits
Izturitze
13
Saint-Martin-d'Arberou
Donamartiri
13
Saint-Esteben
Donoztiri
13

St-Palais
Donapaleu
10 11
Béhasque-Lapiste
Behaskane-Laphizketa
10 11
Domezain-Berraute
Domintxaine-Berroeta
10 11
Etcharry
Etxarri
10 11

Larribar-Sorhapuru
Larribarre-Sorhapürü
10
Uhart-Mixe
Uhartehiri
10
Arhansus
Arhantsusi
10
Ostabat-Asme
Izura-Azme
10
Larceveau-Arros-Cibits
Larزاباله-Arroze-Zibitze
10
Ainhice-Mongelos
Ainhize-Monjolose
10

St-Palais
Donapaleu
10 11
Béhasque-Lapiste
Behaskane-Laphizketa
10 11
Domezain-Berraute
Domintxaine-Berroeta
10 11
Etcharry
Etxarri
10 11
Aroue-Ithorots-Olhaïby
Arué-Ithorrotze-Olhaibi
11
Charritte-de-Bas
Sarrikotapea
11
Espès-Underein
Espeize-Undüreine
11
Viodos-Abense-de-Bas
Bildoze-Onizepea
11

Mauléon-Licharre
Maule-Lexarre
11
Gotein-Libarrenx
Gotaine-Irabarne
11
Menditte
Mendikota
11
Sauguis-St-Etienne
Zalgize-Donetztebe
11
Trois-Villes
Iruri
11
Tardets-Sorholus
Atharatzte-Sorholuze
11

Mauléon-Licharre
Maule-Lexarre
11
Gotein-Libarrenx
Gotaine-Irabarne
11
Menditte
Mendikota
11
Sauguis-St-Etienne
Zalgize-Donetztebe
11
Trois-Villes
Iruri
11
Tardets-Sorholus
Atharatzte-Sorholuze
11

pays Basque
euskal HERRIA

SYNDICAT DES MOBILITÉS
PAYS BASQUE-ADOUR

IPAR EUSKAL
HERRI-ATURRIKO
MUGIKORTASUNEN
SINDIKATUA

